

PRENTSA OHARRA

Barakaldon, 2017ko urtarrilaren 25ean

Elkarlanerako aukerak aztertzeko OSALAN ETA NAFARROAKO LAN-OSASUNERAKO ERAKUNDEAREN ARTEKO BILERA

OSALANeko zuzendari nagusia, Alberto Alonso bere lan-taldearekin batera joan da Nafarroako Lan-Osasunerako Erakundeak Iruñean duen egoitzara, M^a José Pérez Jarauta bere zuzendari-kudeatzailearekin eta Iñaki Moreno segurtasun eta lan-osasun zuzendariarekin batzeko.

Bileraren xedea, bi erakundeen arteko elkarlanerako aukerak aztertzea izan da eta, bakoitzak nabarmentzen den lan-eremu haietan duen esperientzia partekatzeko. Zehazki, OSALANek interes berezia du erakunde nafarrak nekazaritza eta abeltzantza sektorean nola lan egiten duen ezagutzeko, izan ere probatutako ezagutza baitu eremu honetan.